



Ostirala!

Peru Abarrategi Sarrionandia

Denbora librea urrea da.

Denbora libre dugunean, nahi dugun huraxe egiteko, zertan gozatzen dugu?

Peruk umetan ostiral arratsaldeak zituen libre-libre.

Asteko unerik onena, ostiral arratsaldea!

Doinua: Ran Rover Ran

Hiru puntuko kopla

- 1 Astea igaro zait poliki **bezala** (bis) eskerrak heldu dela jada **ostirala** ahal duenak nik beste gozatu **dezala!**
- 2 Lagunekin jarri dut bost terditan **zita** (bis) Nocilla bokata bat prestatu dut **ti-ta** denbora galdu gabe parkera **korrika**.
- 3 Soka saltoa, ping pong pilota, **futbola** (bis) lagun denekin bada niri ez zait **axola** berriz ziztu bizian ahaztu dut **eskola**.
- 4 Guztiok egin dugu kromoen **bilduma** (bis) repeak aldatzeko gaur dugu **eguna** ordu betean baietz bukatu **albuma**.
- 5 Ezkutatzea izan dut beti hain **gustuko** (bis) ongi kamuflatzeko ditut mila **truco** astelehen arte ez nau inork **aurkituko**.
- 6 Amonak eman dizkit 3 euro **gaurko** (bis) goxokiz eta pipaz jarria naiz **bapo** gose handirik ez dut **afalordurako**.
- 7 Nahiz eta badakidan nekatu **naizela** (bis) ostiral iluntzea izan da **itzela** pena da egun denak bukatzen **direla**.

Ostirala!

Lara lara lara lara (bis)